

EBALUAZIO ARIKETAK

- | |
|--|
| 1. GAIA- ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRIA |
| 2. GAIA- SOZIJETATE ANONIMOEN ETA ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIJETATEEN ERAKETA |
| 3. GAIA- KAPITAL SOZIJALAREN ZABALKUNTZAK |
| 4. GAIA- KAPITAL SOZIJALAREN MURRIZTAPENAK |

1. ARIKETA

2X09ko martxoaren 25ean, hiru bazkidek ASTELEHENA, S.A. eratzen dute. Erabateko prozeduraren bidez sortzen da, 500.000 €ko Kapital Sozialarekin, 25.000 titulutan banatuta. Jaulkipena parean egiten da.

- AS, S.A., TELE, S.A. bazkideek diruzko ekarpenak egingo dituzte. Bien artean 10.500 akzio harpidetzen dituzte. Diruzko ekarpenak egiten dituztenei, hasierako despoltsapen minimoa eskatzen zaie, Kapital Sozietateen Legeak ezarritakoa hain zuzen ere.
- NA, S.A.k, gainontzeko akzioak harpidetzen ditu, paper-sorta lote bat emanez ordain-gisa. Paper-sorta honen balioak, adituen arabera, dagokion ekarpenaren erdia estaltzen du, eta gainontzekoa dirutan egingo du eskaera egiten denean.

2X09ko irailaren 1an despoltsatzeke dauden ekarpenak galdatzen dira. Bazkide guztiek, hilabeteko epean ordaintzen dute.

2X11ko otsailaren 2an, ASTELEHENA sozietateak bere kapitala %20an murriztea erabakitzen du, akzioen balio nominala gutxituz bazkideei ekarpenak bueltatzeko. Legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen dira, inolako hartzekodun-aurkako eskubiderik azaldu gabe.

1. 20X9/03/25ean, zenbatekoa da bazkideek despoltsatu gabe daukaten kopurua?

a. 355.000€	b. 395.000€	c. 460.000€	d. 0€
-------------	-------------	-------------	-------

2. 20X9/03/25ean, zenbatekoa da bazkideek dirutan ez den ekarpenetan despoltsatutakoa?

a. 0€	b. 21.000€	c. 40.000€	d. 50.000€
-------	------------	------------	------------

3. 2X11/02/02an kapital-murrizketa gauzatu da. Zenbatekoa izan da?

a. 400.000€	b. 10.500€	c. 100.000€	d. 39.500€
-------------	------------	-------------	------------

2. ARIKETA

IN-CREASE, S.A.k, besteak beste, Ondare Garbiko ondorengo partidak aurkezten ditu 2X13/06/06an:

(100) Kapital Sozial	6.000.000€ (BN = 20)
(110) Jaulkipen Prima	600.000€
(112) Erreserba Legala	960.000€
(113) Borondatezko erreserba	120.000€

IN-CREASE, S.A.ren Bazkide Batzar Orokorrak bere kapitala 1.200.000 eurotan zabaltzea erabaki du. Horretarako akzio zaharrek zuten nominal bereko akzio berriak jaulkiko ditu. Jaulkipena parean egiten da erabilgarriak dituen erreserba guztiak erabiliz, beti ere, legeak ezartzen duenari jarraituz. Gainontzekoa dirutan ordainduko da harpidetzarekin batera.

4. Zein da legeak ezartzen duen gehiengo kopurua aipatutako kapital-zabalkuntza estaltzeko?

a. 960.000€	b. 96.000€	c. 864.000€	d. 240.000€
-------------	------------	-------------	-------------

5. Jaulkipen-prima erreserba erabilgarria da?

- a. Bai, erabat
- b. Ez, erreserba erabilezina da
- c. Bai, baina zabalkuntza osteko kapitalaren %10eko soberakina bakarrik.
- d. Bai, baina zabalkuntza osteko kapitalaren %20ko soberakina bakarrik

6. Zenbatekoa da kapital-zabalkuntza ondorengo balio teorikoa?

a. 25,60€	b. 22,00€	c. 26,43€	d. 26,25€
-----------	-----------	-----------	-----------

7. Zenbatekoa da lehentasun-harpidetza eskubidea?

a. 0,00€	b. -0,83€	c. 22,00€	d. 3,60€
----------	-----------	-----------	----------

8. Zenbatekoa izango da 2.000 akzio zituen bazkide batentzako kostua, zabalkuntzan 450 akzio berri gehiago harpidetu nahi baditu?

a. 2.700€	b. 900€	c. 1.800€	d. 9.000€
-----------	---------	-----------	-----------

3. ARIKETA

IGANDEA, S.A.k 1.000.000 €ko kapital soziala dauka, 50.000 nominal bereko akziotan banatuta. Ez du burtsan kotizatzen.

Elkarteak daukan akzio propio kopurua, legeak ezartzen duen gehieneko kopurua da. 520.000€tan eskuratu zituen eta balio horretan agertzen dira balantzean. 2011ko apirilaren 1ean, akzio propioen erdia saltzen du 53€tan titulu bakoitza.

9. Zenbatekoa da akzio propioen salmentaren zenbatekoa?

a. 265.000€	b. 260.000€	c. 570.000€	d. 520.000€
-------------	-------------	-------------	-------------

5. GAIA- NEGOZIO-KONBINAZIOA

4. ARIKETA

2011ko abenduaren 15ean, ASTELEHENA, S.A.k eta IGANDEA, S.A.k bat egiteko akordioari heltzen diote, non IGANDEAK ASTELEHENA xurgatuko duen.

Fusiorako balantzean, ASTELEHENAREN ondare garbiaren elementuak hauek dira: kapital soziala, erreserba legala orobat zuzkitua eta 150.000€ko borondatezko erreserbak. Balantzeko bestelako elementuak hauek dira: lurrak: 300.000€, E/Luz zorrak: 110.000€, eraikuntzak: 300.000€, salgaiak: 65.000€, hornitzaileak: 55.000€, bezeroak: 30.000€, makineriaren amortizazio metatua: 20.000€, makineria: 150.000€, bankuak: 50.500€, E/Lab zorrak: 75.000€, salgaien balio-narriadura: 5.500€.

Fusio-hitzarmenean xurgatutakoaren, hau da, ASTELEHENAREN, akzioen arrazoizko balioa 26 €tan finkatzen da.

IGANDEA, S.A. elkartearen akzioen balioa 52 €koa da, adostutako balantzearen arabera.

10. Xurgatutako elkartearen ondarea xurgatzaileari ematean, zenbatekoa da (553) Bat-egite eta zatiketarako kontu korranteak kontuan agertzen den kopurua?

a. 650.000€	b. 1.280.000€	c. 20.000€	d. 630.000€
-------------	---------------	------------	-------------

11. Kalkulatu zenbat akzio jaulki behar dituen xurgatzaileak fusio-kostuari aurre egiteko, kontabilitate idazpena azalduz.

a. 7.500 akzio	b. 12.500 akzio	c. 5.000 akzio	d. 50.000 akzio
----------------	-----------------	----------------	-----------------

5. ARIKETA

2X13ko abenduaren 15ean, EKAINA, S.A. eta UZTAILA, S.A. elkarteek, bat-egiteko prozesua hasia erabakitzen dute, ABUZZTUA, S.A. elkarte berria sortzeko asmoz. Fusionatuko diren enpresen egoera-balantzeak hauexek dira:

EKAINA- Balantzea				UZTAILA- Balantzea			
Aktiboa		Ondarea + Pasiboa		Aktiboa		Ondarea + Pasiboa	
<i>Aktibo ez korrientea</i>	730.000	<i>Baliabide Propioak</i>	630.000	<i>Aktibo ez korrientea</i>	230.000	<i>Baliabide Propioak</i>	130.000
		Kapitala Soziala (BN=10€/tit)	400.000			Kapitala (BN=10€/tit)	50.000
		Erreserba legala	100.000			Erreserba legala	10.000
		Jaulkipen-primaria	130.000			Jaulkipen-primaria	70.000
<i>Aktibo korrientea</i>	200.000	<i>Pasiboa</i>	300.000	<i>Aktibo korrientea</i>	200.000	<i>Pasiboa</i>	300.000
GUZTIRA	930.000	GUZTIRA	930.000	GUZTIRA	430.000	GUZTIRA	430.000

12. EKAINA, S.A. eta UZTAILA, S.A. 1.000.000 €tan balioetsita badaude, zein izango da sozietate eskuratzailerak? eta eskuratua?

- Eskuratzailerak: Ekaina; Eskuratua: Uztaila
- Eskuratzailerak: Uztaila; Eskuratua: Ekaina
- Ezin da jakin, informazio nahikoa ez izateagatik
- Bakarrik esan dezakegu Uztaila dela eskuratzailerak

13. Ekaina 1.000.000€tan balioetsita badago eta Uztaila 500.000€tan, aipatu zelan balioesten diren Ekaina eta Uztaila sozietateak, Abuztua sortzeko bat-egite prozesuan:

- Eskuratzailerak, kontabilitate-balioan eta Eskuratua, arrazoizko balioan
- Eskuratzailerak, arrazoizko balioan eta Eskuratua kontabilitate balioan
- Biak arrazoizko balioan
- Biak kontabilitate-balioan

14. ABUZZTUA, S.A. ren eraketa-idazpena egitean, zein da jaulki beharreko akzio kopurua?

a. 125.000 akzio	b. 187.500 akzio	c. 62.500 akzio	d. 18.750 akzio
------------------	------------------	-----------------	-----------------

6. GAIA- EKITALDIKO EMAITZAREN KALKULUA

6. ARIKETA

CONTRIBUTING, S.A.k, besteak beste, ondorengo saldoak dauzka:

100. Kapital Soziala.....	270.000€
103. Bazkideak, galdatu gabeko despol.	(54.000)€
112. Erreserba legala	40.000€
113. Borondatezko erreserbak	10.000€
129. Ekitaldiko Emaizta (zerga aurrekoa)	140.000€
473. O.P. atxikip. eta konturako ordaink	37.000€
4745. Konpents. galeren. Kredituak	9.000€

Informazio gehigarria: (zerga-tasa: %30)

- 10.000 euroko kontabilitate-gastuak daude, fiskalki kengarriak ez direnak.
- 5.000 €ko kontabilitate-gastuak daude, hurrengo urtera arte kengarriak ez direnak.
- Azken aitortpenean geroratutako zergagatiko aktiboak konpentsatu dira; hauen oinarria 10.000€ izan zen.
- Aurreko ekitaldietako oinarri-ezargarri negatibo guztiak konpentsatzen dira.

15. Zenbatekoak dira behin betiko diferentziak?

a. 15.000€	b. 5.000€	c. -10.000€	d. 10.000€
------------	-----------	-------------	------------

16. Denborazko diferentziei buruz, ondorengoa egiazta dezakegu:

- 5.000 €ko denborazko diferentzia kengarria sortzen dela eta 10.000€ko denborazko diferentzia kengarria itzultzen dela.
- 5.000 €ko denborazko diferentzia kengarria sortzen dela eta 10.000€ko denborazko diferentzia ezargarria sortzen dela.
- 5.000 €ko denborazko diferentzia kengarria sortzen dela bakar-bakarrik.
- 10.000 €ko denborazko diferentzia ezargarria sortzen dela bakar-bakarrik.

17. Galerak konpentsatzeko kredituei buruz, ondorengoa esan dezakegu:

- Aurreko ekitaldietako oinarri zergagarri guztiak konpentsatzen direla, 9.000€tan.
- Aurreko ekitaldietako oinarri zergagarri guztiak konpentsatzen direla, 30.000€tan.
- Ezin dela aurreko ekitaldietako oinarri zergagarri guztiak konpentsatzea.
- Ez dagoela aurreko ekitaldietako oinarri zergagarriak, konpentsatzeko kredituak delako eta ez zorra bat.

18. (6301) "Zerga geroratu" kontuarekin lotutako idazpen zuzena, ondorengoa dugu:

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
1.400	(6301) Zerga geroratu		(4740) Denborazko dif.	10.000
5.000	(4740) Denborazko dif. kengarriak		(4745) Galerak konpentsatzeko kredituak	9.000

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
10.500	(6301) Zerga geroratua		(4740) Denborazko dif.	3.000
1.500	(4740) Denborazko dif. kengarriak		kengarriak (4745) Galerak konpentsatzeko kredituak	9.000

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
1.500	(6301) Zerga geroratua		(4740) Denborazko dif.	3.000
1.500	(4740) Denborazko dif. kengarriak		kengarriak	

Zenbatekoa	Zor	Xi	Hartzeko	Zenbatekoa
10.500	(6301) Zerga geroratua		(4740) Denborazko dif.	3.000
1.500	(4740) Denborazko dif. kengarriak		kengarriak (4745) Galerak konpentsatzeko kredituak	9.000

19. Zenbatekoa da kuota garbia?

a. 37.500€	b. 34.500€	c. 31.500€	d. 40.500€
------------	------------	------------	------------

7. ARIKETA

ZERGATION, S.A. Elkarreak, besteak beste, ondorengo saldoak aurkezten ditu:

103. Kapital Soziala.....	270.000€
112. Legezko Erreserba	40.000€
113. Borondatezko Erreserbak	10.000€
129. Zerga aurreko Ekitaldiko emaitza	250.000€
473. O.P. Atxikip. eta konturako ordaink	1.300€
4745. Galerak konpentsatzeagatik kreditua.....	9.000€

Informazio gehigarria (zergatze-tasa: %30a)

- Kengarria ez den 1.000 €ko trafiko-isuna dauka kontabilizatutako gastuetan.
- Zergagarria ez den eraikuntza bat inorenganatzeagatik 50.000 €ko gainbalio-sarrerera kontabilizatuta dauka.
- Inbertsioak egiteagatik 50.000€ko hobariak ditu erabilgarri.
- Aurreko ekitaldietako oinarri negatibo guztiak konpentsatzen dira.

20. Aurreko informazio kontuan izanik, zerga-emaitza ondorengo da:

ZERGA-EMAITZA	
Zerga aurreko kontabilitate-emaitza	250.000
(+/-) Behin betiko diferentziak	+1.000
(+/-) Denborazko diferentziak	-50.000
Aurreko oinarri zergagarria	201.000
(-) Aurreko ekital. oinarri negatiboak	(30.000)
= Oinarri zergagarria	171.000
x Zergatze-tasa (%30)	
= Kuota gordina	51.300
(-) Hobari eta kenkariak	(50.000)
= Kouta likidoa (garbia)	1.300
(-) Atxikip. eta konturako ordainketak	(1.300)
= Ordaintzeko/jasotzeko zerga	0

ZERGA-EMAITZA	
Zerga aurreko kontabilitate-emaitza	250.000
(+/-) Behin betiko diferentziak	0
(+/-) Denborazko diferentziak	+1.000
	-50.000
Aurreko oinarri zergagarria	201.000
(-) Aurreko ekital. oinarri negatiboak	(30.000)
= Oinarri zergagarria	171.000
x Zergatze-tasa (%30)	
= Kuota gordina	51.300
(-) Hobari eta kenkariak	(50.000)
= Kouta likidoa (garbia)	1.300
(-) Atxikip. eta konturako ordainketak	(1.300)
= Ordaintzeko/jasotzeko zerga	0

ZERGA-EMAITZA	
Zerga aurreko kontabilitate-emaiza	250.000
(+/-) Behin betiko diferentziak	+1.000 +50.000
(+/-) Denborazko diferentziak	0
Aurreko oinarri zergagarria	301.000
(-) Aurreko ekital. oinarri negatiboak	(30.000)
= Oinarri zergagarria	271.000
x Zergatze-tasa (%30)	
= Kuota gordina	81.300
(-) Hobari eta kenkariak	(50.000)
= Kouta likidoa (garbia)	31.300
(-) Atxikip. eta konturako ordainketak	(1.300)
= Ordaintzeko/jasotzeko zerga	30.000

ZERGA-EMAITZA	
Zerga aurreko kontabilitate-emaiza	250.000
(+/-) Behin betiko diferentziak	+1.000 -50.000
(+/-) Denborazko diferentziak	0
Aurreko oinarri zergagarria	201.000
(-) Aurreko ekital. oinarri negatiboak	(30.000)
= Oinarri zergagarria	171.000
x Zergatze-tasa (%30)	
= Kuota gordina	51.300
(-) Hobari eta kenkariak	(50.000)
= Kouta likidoa (garbia)	1.300
(-) Atxikip. eta konturako ordainketak	(1.300)
= Ordaintzeko/jasotzeko zerga	0

7. GAIA- PASIBO FINANTZARIOAK

8. ARIKETA

OBLIGATIONS, S.A. elkarteak 2X10eko urtarrilaren 1ean ondorengo ezaugarriak dituen jesapena jaulkitzen du:

- Bonu arruntak: 20.000
- Balio Nominala: 1.000 €
- Jaulkipen balioa: %98
- Errenboltso balioa: %104
- Interes tasa nominala: urteko %3 eta urte amaiera bakoitzean ordainduko da.
- Jaulkipen eta formalizazio gastuak: 150.000 €.
- Titulu guztien amortizazioa amaieran izango da, hau da, 2X13ko urtarrilaren 1ean.
- Interes Tasa Efektiboa (ITE): % 5,280

Data	Finantza-gastuak	Ordainketak	Kostu Amortizatua
2X10/01/01			19.450.000€
2X10/12/31	1.026.960€	-600.000€	19.876.960€
2X11/12/31	1.049.503€	-600.000€	20.326.463€
2X12/12/31	1.073.537€	-600.000€	20.800.000€
2X13/01/01		-20.800.000€	0

21. 2X12/12/31an finantza-kostuaren sortzapenagatik, zein da idazpen zuzena?

Zenbatekoa	Zor	Hartzeko	Zenbatekoa
1.073.537	(661) Obligazio eta bonuen interesak	(177) E/Luz obligazio eta bonuak (572) Bankuak ...k/k... (4751) O.P. atxikipenengatik hartzekodun	473.537 486.000 114.000

Zenbatekoa	Zor	Hartzeko	Zenbatekoa
1.073.537	(661) Obligazio eta bonuen interesak	(177) E/Luz obligazio eta bonuak (572) Bankuak ...k/k...	473.537 600.000

Zenbatekoa	Zor	Hartzeko	Zenbatekoa
600.000	(661) Obligazio eta bonuen interesak	(572) Bankuak ...k/k... (4751) O.P. atxikipenengatik hartzekodun	486.000 114.000

Zenbatekoa	Zor	Hartzeko	Zenbatekoa
1.073.537	(661) Obligazio eta bonuen interesak	(177) E/Luz obligazio eta bonuak (572) Bankuak ...k/k... (4751) O.P. atxikipenengatik hartzekodun	383.565 486.000 203.972

8. GAIA- AKTIBO FINANTZARIOAK

9. ARIKETA

2X11ko ekainaren 30ean INBERTSIOING, S.A.k, Obligations S.A.ren bilakaera ona ikusita (ikusi 8. ariketa), bigarren mailako merkatuan OBLIGATIONSek jaulkiko 100 bonu eskuratzen ditu %103,5 balioan, epe laburrean negoziatzeko asmoz. Eragiketa honengatik 500 €ko gastuak ordaintzen ditu.

2X11ko abenduaren 31n merkatuan bonu guztien balioespena 102.700 €koa da.

2X12ko urtarrilaren 8an, bonu guztiak saltzen ditu, bakoitza 1.030 €tan, inolako komisiorik gabe eta lortutako zenbatekoa beste produktu batean inbertitzeko.

22. Zein da aurreko bonuen hasierako balioespena?

a. 103.500€	b. 102.000€	c. 103.000€	d. 101.500€
-------------	-------------	-------------	-------------

23. Urte amaieran, ¿zein izango da egin beharko duen balioespen-zuzenketa

a. 300€ko zordunketa	b. 800€ abonua	c. 1.200€ abonua	d. 700€ abonua
----------------------	----------------	------------------	----------------

24. 2X12ko urtarrilaren 8ko salmentarekin, zenbateko mozkina lortzen da?

a. 300€ko mozkina	b. 800€ irabazia	c. 1.000€ mozkina	d. 500€ mozkina
-------------------	------------------	-------------------	-----------------

EBAZPENA

1	A
2	C
3	C
4	D
5	A
6	B
7	D
8	A
9	B
10	D
11	A
12	C
13	A
14	B
15	D
16	A
17	B
18	D
19	B
20	D
21	A
22	B
23	D
24	A